

**IKASTOLAK**



2008 AZAROA

**Informatzen**

# ***AZAROAREN 12an, GREBARA!*** **FINANTZIAZIO AKORDIOA LAN** **BALDINTZAK HOBETZEKO!**

Aurreko *Informatzen*-etan unean uneko egoeren berri eman izan dugu. Eta gaur arte ez dago Hezkuntza Saitetik inongo erantzunik egin genion bilera eskaerari. Isiltasun hori berez salagarria izanik, kontua larritzera dator horrek berekin dakarrela 2008ko Lan-Hitzarmenaren negoziaketa ez atzera eta ez aurrera egotea.

Eusko Jaurlaritzak gure aldarrikapenei entzungor egiteak ez gaitu eskatzen dugun horretan nondik ere epelduko. Eta goraki diogu langileen lan baldintzak hobetzea bideratuko duen Finantziario Akordio berria exijitzen diogula Eusko Jaurlaritzari.

Balizko akordio horren oinarritzko ildoak, 2005ean LAB eta ELA sindikatuek eta Partaide eta EIB titularrek sinatu genuen "Dedikazio eredu"n azaltzen direnak dira.

Hori guztia kontutan hartuta, Gasteizko Legebiltzarrean 2009rako aurrekontuak onartu baino lehen mobilizazioekin jarraitzea da ikusten dugun aukera egoki eta duin bakarra.

**LABek, ELAk eta STEE-EILAS azaroaren 12rako, asteazkena, egun osoko greba konbokatu dugu EAEko Ikastoletan eta Ekimen Sozialeko ikastetxeetan. Egun berean manifestazioa ere egingo dugu Bilbon 11,30etan Guggenheim plazatik abiatu eta Eusko Jaurlaritzako egoitzara bitartean.**

**AZAROAREN 12AN**

**DENOK GREBARA!!!**

**LAN BALDINTZAK HOBETZEKO**  
**FINANTZIAZIO AKORDIOA ORAIN!**

